


Euskal AEko BPG %2,9 gehitu zen 2017an

BPGk hiruhileko arteko %0,7ko hazkundea 2017ko laugarren hiruhilekoan; urte artean %3,0

2017ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %3,0 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. 2017ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, %0,7ko gehikuntza, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. 2017an euskal BPG %2,9 gehitu da aurreko urtearen aldean.

2018ko urtarrilaren 29ko Kontuen Aurrerapeneko datuak mantendu egiten dira, bai laugarren hiruhilekoak, bai urtekoak.

BPGren urte arteko aldakuntza-tasa. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskaintzaren ikuspegitik, 2017ko laugarren hiruhileko BPGren urte arteko hazkundea jarduera-sektore guztiei zor zaie, lehen sektoreari izan ezik.

Industria, laugarren hiruhilekoan, %3,7 gehitu da urte artean; hirugarrenean baino puntu bat gehiago. Urte arteko honek puntu bat eta zazpi hamarrenen gehikuntza dakar hiruhileko artean. Manufaktura-industria, zeina industria bere osotasunean adina hazi baita, izan da hiruhilekoaren urte arteko hazkundearen giltza.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016	2017	2016	2017			
			IV	I	II	III	IV
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	2,0	-3,0	-1,5	4,2	-1,9	-1,9	-11,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	2,9	2,7	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7
Manufaktura-industria	3,7	2,8	3,6	2,2	2,7	2,5	3,7
ERAIKUNTZA	1,8	2,5	2,4	2,1	1,9	3,0	3,1
ZERBITZUAK	2,8	3,1	2,7	3,0	3,2	3,1	2,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,3	3,7	3,2	3,9	3,7	3,8	3,1
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,1	2,7	2,4	2,3	3,1	2,6	2,9
Gainerako zerbitzuak	2,8	2,8	2,4	2,7	3,0	3,0	2,7
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	2,7	2,9	2,6	2,7	2,9	3,0	3,0
PRODUKTUEN GAINEN ZERGA GARBIAK	6,8	3,0	6,4	3,3	2,4	3,0	3,2
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezietan	3,1	2,9	3,0	2,8	2,9	3,0	3,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzan %3,1eko gehikuntza urte artean, aurreko hiruhilekoan baino gehixeago Hiru hileko artean, %4,5eko gehikuntza.

Zerbitzuetan urte arteko %2,9ko eta hiruhileko arteko %0,3ko hazkundeak. Zerbitzuak %2,9 gehitu dira urte artean; azpisektore guztiak positiboan indar ezberdinez: **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %3,1. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,9. **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) %2,7.

Hiruhileko artean, **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %1,1 gehitu; **Gainerako zerbitzuak** %0,5. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %0,9 jaitsi.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko %3,0ko gehikuntza ekarri. Aurreko hiruhileko urte arteko datu bera. Hiruhileko artean %0,9ko hazkundea hiruhilekoan.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016	2017			
	IV	I	II	III	IV
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	2,0	-1,7	-1,8	-0,4	-8,4
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,8	-1,1	1,1	1,8	1,7
Manufaktura-industria	0,5	0,3	0,4	1,4	1,7
ERAIKUNTZA	4,4	-2,3	0,1	0,9	4,5
ZERBITZUAK	0,6	1,6	0,9	0,0	0,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,8	1,6	0,0	0,4	1,1
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	-1,2	2,3	2,1	-0,6	-0,9
Gainerako zerbitzuak	0,7	1,2	0,9	0,2	0,5
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzeko prezioetan	0,9	0,7	0,9	0,5	0,9
PRODUKTUEN GAIKOEK ZERGA GARBIAK	-1,3	0,5	1,1	2,8	-1,1
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezietan	0,6	0,7	0,9	0,7	0,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskarian, urte artean %3,1eko hazkundea Barnekoan; positiboan 2017 osoan bezalaxe. Bi osagaiak (Azken kontsumoko gastua, %2,8; Kapital eraketa gordina, %3,8) positiboan.

Esportazioa eta inportazioa %4,8 inguru gehitu.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuan (Kontsumo Pribatua) %2,8ko gehikuntza hiruhilekoan, aurrekoan baino bi hamarren gutxiago. Hiruhileko arteko tasa, %0,1; hirugarren hiruhilekoan baino bi hamarren txikiagoa.

Kontsumo publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua) %2,9 gehitu da urte artean, bi hamarren gehiago aurreko hiruhilekoan baino; hiruhileko artean %1,2 gehitu.

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetako) %2,8 gehitu da. Hiruhileko artean %0,3 gehitu.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %3,8 gehitu da urte artean laugarren hiruhilekoan; 2017ko hiruhileko guztietan sendo gehitu da. Hiruhileko artean %2,1 gehitu. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %4,6 gehitu da urte artean eta %1,6 hiruhileko artean.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016	2017	2016	2017			
			IV	I	II	III	IV
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,9	2,8
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	3,1	3,0	3,1	3,0	3,0	3,0	2,8
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	2,3	2,4	3,1	2,6	1,2	2,7	2,9
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	3,1	3,5	2,9	3,0	3,2	3,9	3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	5,3	4,7	4,3	4,2	5,4	4,5	4,6
Gainerako kapital-eraketa gordina	1,8	2,7	2,1	2,2	1,9	3,5	3,4
BARNE-ESKARIA	3,0	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	1,7	3,0	-0,4	1,5	1,9	3,7	4,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK	1,5	3,1	-0,2	1,9	1,8	3,9	4,8
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,1	2,9	3,0	2,8	2,9	3,0	3,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Kapital Eraketa Gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- urte artean $\%+3,4$ eta hiruhileko artean $\%+2,4$.

Barne eskaria, zeina osatzen baitute Azken kontsumoko gastuak eta Kapital eraketa gordinak, $\%3,1$ gehitu da urte artean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016	2017			
	IV	I	II	III	IV
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,4	1,7	0,5	0,3	0,3
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	0,3	0,4	2,0	0,3	0,1
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	1,0	6,4	-4,9	0,4	1,2
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	2,1	-0,1	0,4	1,4	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,6	1,8	-0,9	2,0	1,6
Gainerako kapital-eraketa gordina	2,4	-1,2	1,2	1,0	2,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-2,1	0,3	6,2	-0,5	-1,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK	-1,8	1,3	5,4	-0,8	-0,9
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,7	0,9	0,7	0,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua (**Dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan**) $\%2,0$ gehitu da urte artean. Urte artekoan $\%0,6$ ko gehikuntza 2017ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, enplegua goraka Lehen Sektorean izan ezik. Zerbitzuetan gehitu da gehien enplegua urte artean, %2,2. Industrian eta Eraikuntzan %1,6ko gehikuntza zenbatetsia. Lehen sektorean %3,4 jaitsiera urte artean.

Hiruhileko artean, enplegua goraka Eraikuntzan (%3,9), Zerbitzuetan (%0,7), Industrian (%0,1). Lehen sektorean %-5,9.

Urte artean, BPG %3,2 gehitu da urte artean eta %0,8 hiruhileko artean Araban eta Gipuzkoan. Bizkaian %2,8 urte artean eta %0,6 hiruhileko artean.

2017ko balantzea

Euskal AEko BPG %2,9 gehitu da 2017an, 2016an baino bi hamarren azpitik. 2015-2017 hirurtekoan, %3,0 inguru gehitu da.

2017an, Zerbitzuak %3,1 gehitu dira; Industria %2,7. Eraikuntza %2,5 gehitu.

Manufaktura-industria nagusi sektorean, %2,8 gehitu da. Zerbitzuetako hiru azpisektoreak gehitu dira, batez ere Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa (%3,7). Gainerako zerbitzuak %2,8 gehitu. Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak %2,7, txikiena.

Barne Eskarian %3,0ko gehikuntza eta BPGn %2,9koa; 2017an kanpo-saldoa negatiboan.

2017an, Barne Eskariaren osagarriak: Azken Kontsumoko gastua (%+2,8), Familia-etxeen Azken Kontsumoko Gastua (%+3,0), Administrazio publikoetako Azken Kontsumoko Gastua (%+2,4).

Kapital Eraketa Gordina %3,5 gehitu da 2017an, 2016an baino lau hamarren gehiago. Haren osagarrietan, Ekipo ondasunak %4,7 gehitu; Gainerakoa, eraikuntzarekin lotuagoa, %2,7.

Enplegua, **dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan**, %2,1 gehitu zen batez beste 2017an. Zerbitzuetan %2,2ko gehikuntza 2016ko batez bestekoaren aldean. Industrian %1,7 gehitu da enplegua eta Eraikuntzan %1,6. Lehen sektorean %0,1, 2016an bezalatsu.

BPG 2017an %3,0 gehitu Araban; %2,9 Bizkaian; %2,8 Gipuzkoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62